



ENPLEGUAREN MANTENUARAKO HOBARIAK

XEDEA	KOLEKTIBOAK	URTEKO HOBARIA	IRAUPENA
Langile adinduen enpleguaren mantenua (8/2015 Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 152. artikulua eta 27/2011 Legea)	Kontratu mugagabea (berria edo indarrean) duten eta gutxienez Gizarte Segurantzari 38 urte eta 6 hilabetetako zinezko kotizazioa daukaten 65 urtetik gorako langile adinduak, edo gutxienez 67 urte izan eta 37 urtetako kotizazioa.	Gizarte Segurantzari gertakari arruntengatik ordaindu beharreko enpresa-kuotaren murriztapena, aldi baterako ezintasuna salbu: %100.	Mugagabea (adina betetzerakoan langileak ez badu beharrezko aintzinasunarik, salbuespena baldintza betetzen den momentutik ezarriko da).
Enplegu selektiboa (1451/1983 EDko 2 art.)	Enpresa utzi ondoren ezintasun iraunkor total edo absolutu bat aitortu zaielako eta berreskurapen profesionalerako prestazioak jaso ondoren, bere lanareko ahalmen guztia berreskuratu duten langileak, edo ezintasun partzial batekin jarraitu eta enpresara itzultzen direnak.	Gertakizun arruntengatik Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotaren murriztapena: 50%	2 urte
Lanpostu-aldaketa edo beste eginkizun bat (haurdunaldiko arrisku, edoskitze edota lan-gaixotasunagatik)	Haurdunaldian zehar edo eradoskitzean zehar arriskuagatik (31/1995 legearen 26. Art.) edo lan arriskuagatik beren egoerarekin bateragarri den lanpostu edo eginkizun batera destinaturiko langileak	Gizarte Segurantzari gertakari arruntengatik ordaindu beharreko enpresa-kuotaren murriztapena: %50	Lanpostu-aldaketak irauten duen bitartean
Aldizkako jarduera finkoen aldia luzatzea (11/2020 Legea)	Urte bakoitzeko otsailean, martxoan eta azaroan jarduera produktiboa sortzen duten turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetako jardueretan aldizkako kontratu finkoak dituzten langileak.	Enpresa-ekarpenaren % 50eko hobaria, kontingentzia arruntak, langabezia, FOGASA eta Lanbide Heziketa	Urte bakoitzeko otsaila, martxoa eta azaroa.